## REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL DEFENSOR DE LA COMUNIDAD UNIVERSITARIA DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

La Ley Orgánica de Universidades, en su Disposición adicional decimocuarta, instituye la figura del Defensor Universitario para velar por el respeto a los derechos y las libertades de los profesores, estudiantes y personal de administración y servicios, ante las actuaciones de los diferentes órganos y servicios universitarios. Sus actuaciones, siempre dirigidas hacia la mejora de la calidad universitaria en todos sus ámbitos, no estarán sometidas a mandato imperativo de ninguna instancia universitaria y vendrán regidas por los principios de independencia y autonomía.

Los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra regulan, en el Capítulo IV del Título IV , la figura del Defensor de la Comunidad Universitaria (en adelante el Defensor) y establecen que el Claustro aprobará, a propuesta del Defensor, el reglamento de funcionamiento de la institución, así como sus reformas.

## TÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1

El Defensor es el alto comisionado del Claustro encargado de la defensa y protección de los derechos de todos los miembros de la comunidad universitaria, así como del cumplimiento de lo dispuesto en los Estatutos de la Universidad.

### Artículo 2

1) Las funciones del Defensor son:

a) Velar por el respeto a los derechos y las

## NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO UNIBERTSITATEKO KOMUNITATEAREN ARARTEKOAREN FUNTZIONAMENDU ARAUTEGIA

Unibertsitateei buruzko Lege Organikoak, bere hamalaugarren xedapen gehigarrian, Unibertsitateko arartekoaren figura ezartzen du unibertsitateko organoen eta zerbitzuen jarduerek irakasleen, ikasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubide eta askatasunak errespetatzen dituztela zaintzeko. Bere jardunak, unibertsitateko esparru guztietan kalitatea hobetzera zuzenduak beti, ez dira unibertsitateko ezein instantziaren aginduzko mandatuaren mende egongo eta independentzia eta autonomia printzipioei jarraituko diete.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek IV. Tituluaren IV. kapituluan arautzen dute Unibertsitateko Komunitatearen arartekoaren figura (aurrerantzean arartekoa) eta xedatzen dute Klaustroak, arartekoak eskatuta, erakundearen funtzionamendu-arautegia eta bere erreformak onetsiko dituela.

## I. TITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua

Unibertsitateko komunitateko kide guztien eskubideak defendatu eta babesteko eta Unibertsitatearen Estatutuetan ezarritakoa betetzeko ardura duen Klaustroaren goi mandataria da arartekoa.

### 2. artikulua

1) Arartekoaren eginkizunak hauek dira:

a) Irakasleen, ikasleen eta administrazio eta

libertades de los profesores, estudiantes y personal de administración y servicios, ante las actuaciones de los diferentes órganos y servicios universitarios.

zerbitzuetako langileen eskubide eta askatasunak errespetatzen direla zaintzea unibertsitateko organoen eta zerbitzuen jardunen aurrean.

b) Prevenir y resolver problemas y conflictos relacionados con la actividad universitaria en todos los niveles.

b) Unibertsitateko jarduerarekin lotutako arazoei aurrea hartzea eta konpontzea maila guztietan.

c) Buscar la mejora de la calidad universitaria en todos sus ámbitos y contribuir al mejor funcionamiento de la Universidad Pública de Navarra.

c) Unibertsitatearen kalitatea hobetzea bere esparru guztietan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak hobeki funtziona dezan laguntzea.

d) Dirigir su oficina y velar por su buen funcionamiento.

d) Bere bulegoa zuzentzea eta ongi funtziona dezan zaintzea.

e) Presentar el informe anual de sus actuaciones al Claustro, proponiendo las sugerencias y recomendaciones que considere convenientes para un mejor funcionamiento de la Universidad.

e) Bere jarduerei buruzko urteko txostena aurkeztea Klaustroari, eta unibertsitateak hobeki funtzionatzeko egoki jotzen dituen iradokizunak eta gomendioak proposatzea.

2) En el desarrollo de sus funciones, el Defensor podrá:

2) Bere eginkizunak garatzean, arartekoak:

a) Recibir las consultas ante las actuaciones de los distintos órganos universitarios o peticiones de mediación y conciliación, quejas, observaciones o reclamaciones, relacionadas con cualquier tema universitario que se le formule, efectuadas por las personas que tengan interés legítimo para hacerlo, y darles debido trámite.

a) Unibertsitateko organoen jarduerak direla-eta egiten zaizkion kontsultak edo aipatzen zaion unibertsitateko edozein gairekin lotutako bitartekaritza eta adiskidetze eskaerak, kexak, oharrak edo erreklamazioak jasoko ditu, betiere horiek egiteko bidezko interesa dutenek aurkezten badituzte, eta behar bezala tramitatuko ditu.

b) Mediar en la solución de desacuerdos y diferencias entre distintos integrantes de la comunidad universitaria

b) Unibertsitateko komunitatearen kideen arteko desadostasunak eta aldeak konpontzeko bitartekaritza lana egingo du.

c) Efectuar las propuestas, sugerencias y recomendaciones que estime adecuadas para la resolución de los casos que sean sometidos a su consideración o en los que intervenga de oficio.

c) Berari aztertzeko bidaltzen dizkioten edo ofizioz aztertzen dituen kasuak konpontzeko egoki jotzen dituen proposamenak, iradokizunak eta gomendioak egingo ditu.

d) Atender cuantas observaciones y

d) Nafarroako Unibertsitate Publikoak

sugerencias se le formulen en relación con el funcionamiento de los servicios que presta la Universidad Pública de Navarra y que considere puedan ser susceptibles de mejora.

e) Acudir a cualquier dependencia de la Universidad Pública de Navarra para comprobar cuantos datos considere oportunos, hacer las entrevistas personales pertinentes o proceder al estudio de los expedientes y de la documentación que le sean necesaria, con respeto de la legalidad vigente.

f) Establecer contactos e intercambios de información sobre problemas comunes con las defensorías de otras universidades.

## TÍTULO II
## ELECCIÓN, DURACIÓN DEL MANDATO Y CESE

### Artículo 3

1) El Defensor será elegido por el Claustro entre miembros de la comunidad universitaria.

2) La mesa del Claustro convocará la elección en el plazo de un mes antes de la expiración del mandato del anterior. Establecerá un plazo suficientemente amplio para que cualquier miembro de la comunidad universitaria pueda formalizar su candidatura.

3) Los candidatos, si lo desean, podrán solicitar a la Mesa del Claustro la presentación oral de su *curriculum* y de sus líneas de actuación ante el Pleno del Claustro.

4) Resultará elegido el candidato que alcance el voto favorable de tres quintos de los miembros del Claustro presentes. De no resultar electo ningún candidato, se procederá a una segunda vuelta, que en el

ematen dituen eta bere iritzian hobetu daitezkeen zerbitzuen funtzionamendua dela-eta egiten zaizkion ohar eta iradokizunei kasu egingo die.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren edozein bulegotara joango da egoki jotzen dituen datuak egiaztatzeko, behar diren elkarrizketa pertsonalak egiteko edo beharrezkoak dituen espedienteak eta dokumentazioa aztertzeko lege indardunei dagokienez.

f) Harremanak egin eta arazo komunei buruzko informazioa trukatuko du beste unibertsitate batzuetako arartekoekin.

## II. TITULUA
## HAUTAKETA, AGINTALDIAREN IRAUPENA ETA KARGU-UZTEA

### 3. artikulua

1) Klaustroak hautatuko du arartekoa unibertsitate komunitateko kideen artean.

2) Klaustroko Mahaiak hilabeteko epean egingo du hautaketarako deialdia aurreko arartekoaren agintaldia amaitu baino lehen. Unibertsitate komunitateko edozein kidek bere hautagaitza aurkezteko beharrezkoa den epe bat ezarriko du.

3) Hautagaiek, nahi baldin badute, Klaustroaren Osoko Bilkuraren aurrean beren *curriculuma* eta jarduera lerroak ahoz aurkezten uzteko eskatuko diote Klaustroko Mahaiari.

4) Bozketan Klaustroan dauden klaustrokideen hiru bostenen aldeko botoa lortzen duen hautagaia hautatuko dute. Ez badute ezein hautagai hautatzen, bigarren itzulia egingo da eta, bi hautagai baino

caso de concurrir más de dos candidaturas, será entre las dos más votadas. Si no se consigue la mayoría necesaria en la segunda vuelta, el Rector encargará, provisionalmente, durante un año, las funciones de Defensor a un miembro de la comunidad universitaria.

5) La duración del mandato será de cuatro años, con posibilidad de reelección consecutiva por una sola vez.

**Artículo 4**

1) El Defensor cesará por alguna de las siguientes causas:

a) Por renuncia, comunicada por escrito al Presidente del Claustro.

b) Por muerte o incapacidad legalmente declarada.

c) Por expiración del plazo de nombramiento.

d) Por dejar de ser miembro de la comunidad universitaria.

e) Por actuar con notoria negligencia en el cumplimiento de sus obligaciones o por actuaciones que den lugar a lesión de derechos.

2) En los casos a) y c) el Defensor continuará en funciones hasta la elección de sus sucesor. En el caso e) el cese se decidirá por acuerdo del Claustro, con las mismas mayorías exigidas para su nombramiento, previo debate y audiencia del interesado. Para iniciar este procedimiento de cese se necesita la solicitud, como mínimo del 25% del total de los miembros del Claustro.

3) Vacante el cargo, se iniciará el procedimiento para el nombramiento de un

gehiago baldin badaude, boto gehien lortu dituzten bi hautagaien artean egingo da. Bigarren itzulian ez bada beharrezkoa den gehiengoa lortzen, errektoreak, behin-behinean, eta urtebeterako, unibertsitateko komunitateko kide bati emango dizkio arartekoaren eginkizunak.

5) Agintaldia lau urtekoa izango da, eta behin baizik ezin izango da hurrenez hurreneko hauteskundeetan berriz hautatua izan.

**4. artikulua**

1) Arartekoak kargua utziko arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Uko egiteagatik. Ukoa idatziz jakinaraziko zaio Klaustroko buruari.

b) Heriotzagatik edo legez aitortutako desgaitasunagatik.

c) Izendapen epea iraungitzeagatik.

d) Unibertsitateko komunitateko kidea izateari uzteagatik.

e) Axolagabekeria nabarmenez aritzeagatik bere betebeharrak betetzean edo eskubideak urratzen dituzten jarduerengatik.

2) a) eta c) kasuetan arartekoak jardunean segituko du hurrengo arartekoa hautatzen duten arte. e) kasuan Klaustroak erabakiko du kargu-gabetzea, izendapenerako eskatutako gehiengo berberekin, aldez aurretik eztabaidatu eta interesdunari entzun ondoren. Gutxienez ere Klaustroko kide guztien % 25ek egin behar du eskaera kargu-gabetze prozedura hori hasteko.

3) Kargua hutsik geratzen denean, ararteko berri bat izendatzeko prozedura hasiko da

nuevo Defensor en un plazo no superior a tres meses.

hiru hilabeteko epean gehienez ere.

## TÍTULO III
## ESTATUTO DEL DEFENSOR

### Artículo 5

El Defensor no está sometido a mandato imperativo alguno ni a instrucciones de ninguna autoridad académica, órgano de gobierno o cualquier otro miembro de la comunidad universitaria, y desempeñará sus funciones con autonomía y según su criterio. Sus intervenciones se guiarán por el principio de justicia dentro de las diversas opciones que admita la legalidad vigente, dando como resultado la formulación de recomendaciones y sugerencias o la constatación de que los servicios universitarios funcionaron en buena y debida forma.

### Artículo 6

El defensor carece de facultades ejecutivas. Las actuaciones desarrolladas por el Defensor en el ejercicio de sus funciones no tienen la consideración de actos administrativos y no serán susceptibles de recurso alguno.

### Artículo 7

El Consejo de Gobierno establecerá la dispensa total o parcial al Defensor de sus otras tareas universitarias y determinará la retribución complementaria correspondiente al ejercicio del cargo.

### Artículo 8

1) El Defensor no podrá ser expedientado por

## III. TITULUA
## ARARTEKOAREN ESTATUTUA

### 5. artikulua

Arartekoa ez dago ezein irakaskuntza agintari, gobernu organo edo unibertsitateko komunitateko beste edozein kideren aginduzko mandatuen edo jarraibideen mendean, eta bere eginkizunak autonomiaz eta bere irizpidearen arabera beteko ditu. Bere esku-hartzeek justizia printzipioari jarraituko diote legeria indardunak onartzen dituen aukeren barnean, eta emaitza gisa gomendioak eta iradokizunak egingo ditu eta unibertsitateko zerbitzuak ongi eta behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatuko du.

### 6. artikulua

Arartekoak ez dauka ahalmen betearazlerik. Arartekoak bere eginkizunen egikaritzan egindako jarduerak ez dira administrazio egintzak eta egintza horien aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

### 7. artikulua

Gobernu Kontseiluak erabat edo partzialki salbuetsiko du arartekoa unibertsitatean dituen beste zereginetatik eta karguari dagokion ordainsari osagarria ezarriko du.

### 8. artikulua

1) Arartekoari ezin izango zaio espedienterik

las opiniones que formule o por los actos que realice en el ejercicio de las competencias inherentes a su cargo.

ireki plazaratzen dituen iritziengatik edo bere karguari dagozkion eskuduntzen egikaritzan egiten dituen egintzengatik.

2) La condición de Defensor es incompatible con el desempeño de cualquier cargo académico, representativo o de gobierno universitario. El Defensor, en el momento de su nombramiento, cesará en los cargos incompatibles que viniera desempeñando.

2) Arartekoaren kargua bateraezina da irakaskuntzako, ordezkaritzako edo unibertsitate-gobernuko edozein kargu izatearekin. Arartekoak, izendatzen duten unean, ordura arte betetzen zituen kargu bateraezinak utziko ditu.

3) Si una vez tomada posesión del cargo de Defensor, le sobreviniera la incompatibilidad para su ejercicio, se entenderá que el Defensor renuncia al puesto en el cargo universitario origen de ésta, salvo que expresamente renuncie al cargo de Defensor. En cualquier caso, si tomara posesión formal de este puesto sobrevenido o lo comenzare a ejercer, se entenderá que en la misma fecha renuncia al cargo de Defensor.

3) Arartekoaren karguaz jabetu eta gero, kargu horretan aritzeko bateraezintasunen bat baldin badauka, bateraezintasun hori eragin duen unibertsitateko karguari uko egin diola ulertuko da, ez bada arartekoaren karguari espresuki uko egin diola. Nolanahi ere, geroagoko postu horretaz formalki jabetzen bada edo kargu horren eginkizunak betetzen hasten bada, arartekoaren karguari data berean uko egin diola ulertuko da.

**Artículo 9**

El Defensor debe:

1) Emplear la diligencia debida en el ejercicio de sus funciones.

2) Mantener la confidencialidad y reserva requerida en los asuntos que conozca.

3) Garantizar la ecuanimidad en el desempeño de sus funciones.

4) Actuar con imparcialidad e independencia de criterio.

5) Recibir las solicitudes que se le formulen y darles el debido trámite resolviéndolas en plazo.

**9. artikulua**

Arartekoak:

1) Behar den arduraz bete behar ditu bere eginkizunak.

2) Berari dagozkion gaietan eskatzen den konfidentzialtasun eta zuhurtasunez jokatu behar du.

3) Alderdikeriarik eza bermatu behar du bere eginkizunak betetzean.

4) Inpartzialtasunez eta irizpide independentziaz jokatu behar du.

5) Egiten zaizkion eskaerak jaso, behar bezala tramitatu eta epean ebatzi behar ditu.

**Artículo 10**

1) El Defensor podrá proponer al Rector el

**10. artikulua**

1) Arartekoak zilegi du errektoreari ararteko

nombramiento y cese de Defensor Adjunto.

atxikiaren izendapena eta kargugabetzea proposatzea.

2) El Claustro deberá ser informado del nombramiento o cese de Defensor Adjunto.

2) Ararteko atxikiaren izendapena edo kargugabetzea jakinarazi behar zaio Klaustroari.

3) La persona propuesta para ser nombrada como Defensor Adjunto deberá reunir los requisitos que para el Defensor se recogen en el artículo 3 del presente Reglamento.

3) Ararteko atxiki izendatua izateko proposatua izan denak arautegi honetako 3. artikuluan arartekoarentzat ezarritako betekizunak bete behar ditu.

4) El Defensor Adjunto suplirá al Defensor en caso de ausencia, enfermedad, o en caso de vacante por cese debido a las causas previstas en los apartados b) y d) del artículo 4.1 del presente Reglamento.

4) Ararteko atxikiak arartekoa ordeztuko du hau ez badago, gaixo badago edo bere postua hutsik badago kargua utzi duelako arautegi honetako 4.1 artikuluko b) eta d) idatz-zatietan ezarritako arrazoiengatik.

5) El Defensor Adjunto cesará automáticamente cuando cese el Defensor que lo propuso, permaneciendo en funciones mientras se procede al nombramiento del nuevo Defensor.

5) Ararteko atxikiak automatikoki utziko du kargua bera proposatu zuen arartekoak kargua uzten duenean eta jardunean arituko da arartеko berria izendatu bitartean.

6) En todas sus actuaciones el Defensor Adjunto tendrá la misma consideración que el Defensor.

6) Ararteko atxikiak izaera bera izango du bere jarduera guztietan.

7) Las prerrogativas, incompatibilidades y obligaciones del Defensor previstas en este título afectarán igualmente al Defensor Adjunto.

7) Titulu honetan ezarrita dauden arartekoaren eskumenak, bateraezintasunak eta betebeharrak ere izango ditu arartеko atxikiak.

## TÍTULO IV
## DE LA OFICINA DEL DEFENSOR

### Artículo 11

1) El Defensor contará con una oficina dotada de medios materiales y de personal adecuados para el digno y eficaz desempeño de sus funciones.

2) A fin de garantizar su independencia dispondrá de una asignación propia incluida en los presupuestos anuales.

## IV. TITULUA
## ARARTEKOAREN BULEGOA

### 11. artikulua

1) Bere eginkizunak duintasunez eta eraginkortasunez betetzeko baliabide materialak eta pertsonalak dauzkan bulego bat edukiko du arartekoak.

2) Bere independentzia bermatzeko, urteko aurrekontuetan jasoko den esleipen propio bat edukiko du.

3) El Defensor establecerá los procedimientos que garanticen la confidencialidad de la información con origen y destino en la Oficina. En cualquier caso, toda persona de la Oficina del Defensor está sujeta a la obligación de guardar estricta reserva en relación con los asuntos que ante el mismo se tramiten sin perjuicio de las consideraciones que el Defensor deba incluir en sus informes al Claustro.

3) Bulegotik bidaltzen den eta bulegoan jasotzen den informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko duten prozedurak ezarriko ditu arartekoak. Nolanahi ere, arartekoaren bulegoko langile guztiek isilpean gorde behar dituzte bulegoan tramitatzen diren gaiak, arartekoak Klaustroari zuzendutako txostenetan jaso behar dituen gorabeherak galarazi gabe.

4) La oficina del Defensor registrará las solicitudes de actuación que reciba con carácter reservado al objeto de garantizar la confidencialidad de los asuntos tramitados y en particular la identidad de quienes insten su intervención.

4) Arartekoaren bulegoak isilpean erregistratuko ditu jasotzen dituen jarduteko eskaerak, tramitatutako gaien konfidentzialtasuna bermatzeko eta bereziki berari esku hartzeko eskatzen diotenen nortasuna.

## TÍTULO V
## APOYO INSTITUCIONAL

## V. TITULUA
## ERAKUNDEEN LAGUNTZA

**Artículo 12**

**12. artikulua**

1) El defensor de la Comunidad Universitaria podrá acceder a cualquier documento interno de la Universidad Pública de Navarra. Todos los órganos de gobierno de la comunidad universitaria están obligados a atender con carácter preferente y urgente las demandas y requerimientos que les dirija el Defensor en el ejercicio de sus funciones, sobre cuestiones que sean de la respectiva responsabilidad de aquéllas.

1) Unibertsitateko Komunitatearen arartekoak zilegi du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren edozein barne dokumentu eskuratzea. Unibertsitateko komunitatearen gobernu organo guztiek lehentasunez eta urgentziaz aztertu behar dituzte arartekoak bere eginkizunak betez bidaltzen dizkien eskaerak eta errekerimenduak, betiere gobernu organo horien gaiei buruzkoak badira.

2) Salvo que se trate de una queja relacionada estrictamente con la actuación de una persona, el Defensor dirigirá las demandas y requerimientos al responsable del órgano de gobierno o de la unidad administrativa correspondiente y recabará de él la información que necesite.

2) Pertsona baten jarduerarekin lotura estua duen kexa bat ez bada, eskaerak eta errekerimenduak dagokion gobernu organoaren edo administrazio unitatearen arduradunari zuzenduko dizkio arartekoak eta arduradunari eskatuko dio, halaber, beharrezkoa duen informazioa.

3) Los incumplimientos del deber de colaboración por parte de los órganos y miembros de la comunidad universitaria, podrán ser puestos en conocimiento del

3) Unibertsitateko komunitatearen kideek eta organoek laguntzeko betebeharra betetzen ez badute, zilegi du hierarkian gorago dagoenari jakinaraztea, arartekoaren

superior jerárquico correspondiente, sin perjuicio de su constancia en el informe anual del Defensor.

4) En beneficio de sus funciones, el Defensor podrá asistir, con voz pero sin voto, a las sesiones de cualquier órgano colegiado de la Universidad.

## TÍTULO VI
## PROCEDIMIENTOS DE ACTUACIÓN

**Artículo 13**

1) El Defensor actuará de oficio o a instancia de parte

2) Toda persona de la comunidad universitaria con interés legítimo, tanto individual como colectivo, se puede dirigir al Defensor para solicitarle que actúe.

3) Las solicitudes deben ser presentadas al Defensor por la persona interesada o persona en quien delegue, debidamente identificada.

4) El plazo de presentación de la formulación escrita al Defensor será de tres meses desde el conocimiento por parte de la persona interesada del hecho objeto de la solicitud y, en todo caso, de seis meses a partir de que el hecho se produjera.

5) A efectos de su distinta tramitación las solicitudes de actuación al Defensor se clasifican en:
a) Consultas y observaciones.
b) Quejas y reclamaciones.
c) Peticiones de mediación y conciliación.

6) El inicio de una actuación por el Defensor, así como su posterior admisión si procediera, no suspende en ningún caso los plazos previstos para recurrir tanto en vía

urteko txostenean ez betetze hori jasota geratzea galarazi gabe.

4) Bere eginkizunak hobeki betetzeko, arartekoak zilegi du unibertsitateko edozein organo kolegiaturen bileretan hizpidearekin baina botorik gabe parte hartzea.

## VI. TITULUA
## JARDUTEKO PROZEDURAK

**13. artikulua**

1) Arartekoak ofizioz edo alde batek eskatuta jardungo du

2) Bidezko interes indibidual edo kolektiboa duten unibertsitateko komunitateko kideek zilegi dute arartekoari jarduteko eskatzea.

3) Interesdunak edo honek eskuordetutako pertsonak, behar bezala identifikatuta, aurkeztu behar dizkio eskaerak arartekoari.

4) Arartekoari eskaera idatzia aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da interesdunak eskaeraren xedea den gertaeraren berri izan duenetik, eta, nolanahi ere, sei hilabetekoa gertaera jazotzen denetik.

5) Eskaerak modu batean edo bestean tramitatzeari begira, artekoari aurkeztutako jarduteko eskaerak honela sailkatuta daude:
a) Kontsultak eta oharrak.
b) Kexak eta erreklamazioak.
c) Bitartekaritza eta adiskidetze eskaerak.

6) Arartekoak jarduera bat hasteak, bai eta gero eskaera onartzeak ere bidezkoa bada, ez ditu administrazio-bidean edo jurisdikzio bidean errekurtsoa aurkezteko epeak eteten,

administrativa como jurisdiccional ni la ejecución de la resolución o acto afectado.

ez eta ukitutako ebazpenaren egintzaren betearazpena ere.

**Artículo 14**

1) El defensor registrará y acusará recibo de todas las quejas y reclamaciones que se formulen. Recibida una queja o reclamación, deberá dar contestación sobre su admisión a trámite o rechazo en un plazo máximo de quince días.

2) El defensor rechazará:
a) Las quejas o reclamaciones sobre las que esté pendiente resolución administrativa o judicial. Se suspenderá su actuación si, iniciada ésta, se interpusiera por persona interesada demanda o recurso ante los órganos administrativos o jurisdiccionales o no se hubiera agotado la reclamación previa. Ello no impedirá, sin embargo, la investigación sobre los problemas generales planteados en las solicitudes presentadas.

b) Las solicitudes anónimas, las formuladas con mala fe, con fundamento insuficiente o inexistencia de pretensión concreta y todas aquellas cuya tramitación cause un perjuicio al derecho legítimo de terceras personas.

**14. artikulua**

1) Arartekoak aurkezten diren kexa eta erreklamazio guztiak erregistratu eta hartu dituela adieraziko du. Kexa edo erreklamazio bat hartzen duenean, tramitean onartuko dituen edo atzera botako dituen jakinarazi behar du hamabost eguneko epean.

2) Arartekoak atzera botako ditu:
a) Administrazioaren edo epaileen ebazpen baten zain dauden kexak eta erreklamazioak. Bere jarduera etengo du, jarduera hasi eta gero, interesdunak salaketa edo errekurtso bat aurkezten badu administrazio edo jurisdikzio organoen aurrean edo aldez aurretiko erreklamazioa agortu ez bada. Hala ere, horrek ez du eragotziko aurkeztutako eskaeretan agertutako arazo orokorrei buruzko ikerketa egitea.

b) Eskaera izengabeak, fede gaiztoarekin egindakoak, oinarri sendorik gabeak, edo uzi zehatzik ez dutenak edo tramitatzean hirugarren pertsonen bidezko interesari kalte egiten dioten eskaera guztiak.

**Artículo 15**

1) El Defensor sustanciará sus actuaciones en el ejercicio de sus funciones mediante recomendaciones y sugerencias dirigidas a los órganos y servicios universitarios que estime oportunos.

2) Formuladas las recomendaciones y sugerencias, si el destinatario no corresponde con una medida adecuada en el plazo de un mes o bien no informa al Defensor en igual plazo de las razones que le asisten para no adoptarla, éste podrá poner en antecedentes al Rectorado de tal circunstancia.

**15. artikulua**

1) Arartekoak bere jarduerak bideratuko ditu bere eginkizunen egikaritzan egoki jotzen dituen unibertsitateko organoei eta zerbitzuei zuzendutako gomendio eta iradokizunen bidez.

2) Gomendioak eta iradokizunak egin eta gero, hartzaileak ez badu neurri egoki batekin erantzuten hilabeteko epean edo arartekoari ez badio epe berean jakinarazten zein arrazoitan oinarritu den neurri hori ez hartzeko, arartekoak zilegi du errektoreari horren berri ematea.

3) Con el objeto de dotarlos de mayor difusión y eficacia, el Defensor podrá publicar, en la página web de la Universidad, de un modo únicamente accesible para los miembros de la comunidad universitaria, las sugerencias, recomendaciones, dictámenes e informes que considere de interés.

3) Hedapen eta eraginkortasun handiagoa izateko, arartekoak zilegi du interesgarritzat jotzen dituen iradokizunak, gomendioak, irizpenak eta txostenak Unibertsitatearen web orrialdean jendaurrean jartzea, soilik unibertsitateko komunitateko kideek eskuragarri izateko moduan.

**Artículo 16**

**16. artikulua**

1) Una vez admitida la solicitud o iniciado el expediente de oficio, el Defensor adoptará las medidas de investigación que considere necesarias. Podrá requerir a la persona afectada por la actuación para que haga las alegaciones pertinentes, para que aporte la documentación necesaria o comparezca para informar y, si es necesario, podrá comunicarlo a los órganos académicos o administrativos afectados y pedirles información. Dichos órganos dispondrán de un plazo de quince días para contestar.

1) Eskaera onartu eta gero edo espedientea ofizioz hasi eta gero, arartekoak beharrezkotzat jotzen dituen ikerketa neurriak hartuko ditu. Zilegi du jarduerak ukitutako pertsonari dagozkion alegazioak egiteko, beharrezkoa den informazioa aurkezteko edo informazioa ematera joateko eskatzea, eta, beharrezkoa bada, ukitutako irakaskuntza edo administrazio organoei jakinarazi eta informazioa eskatuko die. Organo horiek hamabost eguneko epea izango dute erantzuteko.

2) Si como consecuencia de sus investigaciones, aun realizadas de oficio, llegase al convencimiento de que el cumplimiento de una norma, acuerdo o resolución puede provocar situaciones injustas o perjudiciales para los miembros de la comunidad universitaria, podrá sugerir al órgano competente la modificación de la norma en cuestión.

2) Bere ikerketen ondorio gisa, ofizioz egindakoak izanagatik ere, ondorioztatuko balu arau, erabaki edo ebazpen baten betearazpenak unibertsitateko komunitateko kideentzat egoera bidegabeak edo kaltegarriak sor ditzakeela, zilegi du organo eskudunari dagokion araua aldatzeko eskatzea.

**Artículo 17**

**17. artikulua**

Las quejas y reclamaciones tendrán la siguiente tramitación:

Kexak eta erreklamazioak honela tramitatuko dira:

1) Una vez realizado el proceso de investigación, el Defensor emitirá un dictamen o informe en el que, aun no siendo competente para anular o modificar los actos y resoluciones de los órganos de la Universidad Pública de Navarra, podrá

1) Ikerketa prozesua egin eta gero, arartekoak irizpen edo txosten bat egingo du eta bertan, Nafarroako Unibertsitate Publikoko organoen egintzak eta ebazpenak baliogabetzeko edo aldatzeko eskuduna ez bada ere, zilegi du aurkeztutako kexei buruz

mostrar su parecer sobre las quejas presentadas y hacer las recomendaciones que considere pertinentes para modificarlos. De este dictamen o informe pasará comunicación al órgano, servicio, unidad administrativa o persona acerca de los cuales se haya suscitado la actuación.

bere iritzia ematea eta egintza eta ebazpen horiek aldatzeko beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak egitea. Irizpen edo txosten hori jardueraren jomuga izan den organo, zerbitzu, administrazio unitate edo pertsonari jakinaraziko zaio.

2) El Defensor informará al actor o actores del resultado de sus investigaciones y gestión, así como de la respuesta que haya dado el órgano o persona implicada, y llevará registro de estas comunicaciones.

2) Arartekoak bere ikerketak eta kudeaketa jakinaraziko dizkie eragileei, bai eta ukitutako organoak edo pertsonak emandako erantzuna ere, eta jakinarazpen horiek erregistratuko ditu.

3) Entre la presentación de la solicitud y el primer informe que al respecto emita el Defensor, no deberá transcurrir un plazo superior a tres meses.

3) Eskaera aurkezten denetik eta eskaera horren gainean arartekoak egiten duen lehen txostenera arte, hiru hilabeteko epea igaroko da gehienez ere.

**Artículo 18**

Actuaciones de mediación:

1) En las actuaciones de mediación las partes implicadas deberán solicitar voluntariamente la actuación del Defensor y comprometerse a cumplir los acuerdos alcanzados.

2) Las partes en conflicto deberán identificar el alcance del mismo y podrán en el proceso abierto formular por escrito sus consideraciones y fundamentos de actuación.

3) El Defensor podrá reunir a las partes y consultar a terceros con el objeto de buscar y proponer fórmulas de solución que satisfagan a las partes en los aspectos controvertidos.

4) Si como consecuencia del proceso mediador se llegara a acuerdos y éstos se incumplieran, el Defensor, en cuanto tenga conocimiento de ello, solicitará las actuaciones de los órganos universitarios competentes para corregir la situación.

**18. artikulua**

Bitartekaritza jarduerak:

1) Bitartekaritza jardueretan ukituta dauden aldeek beren borondatez eskatu behar dute artekoak jardutea eta lortutako akordioak betetzeko konpromisoa hartu behar dute.

2) Gatazkan dauden aldeek gatazka norainokoa den identifikatu behar dute eta irekitako prozesuan beren gogoetak eta jarduera oinarriak idatziz jaso ahalko dituzte.

3) Arartekoak zilegi du aldeak biltzea eta hirugarrenei kontsultatzea, auzi eztabaidatuetan aldeak aseko dituzten konponbideak bilatzeko eta proposatzeko.

4) Bitartekaritza prozesua dela medio akordioak lortuko balira eta akordio horiek beteko ez balira, arartekoak, ez betetzearen berri duenean, unibertsitateko organo eskudunei jarduerak egiten hasteko eskatuko die egoera zuzentzeko.

## TÍTULO VII
## DEL INFORME ANUAL

**Artículo 19**

1) El Defensor elaborará un informe anual que será presentado ante el Claustro en la primera sesión ordinaria que se convoque en cada curso académico.

2) Cuando la gravedad o urgencia de los hechos lo aconsejen podrá presentar un informe extraordinario que dirigirá a la Mesa del Claustro.

3) El informe anual contendrá, al menos, los siguientes datos:

a) El número y tipo de solicitudes admitidas y de los expedientes iniciados de oficio.

b) Las solicitudes rechazadas, las que estén en tramitación y las ya investigadas con el resultado obtenido, así como, los motivos que dieron pie a ellas.

4) En el informe no constarán datos personales que permitan la pública identificación de los interesados en el proceso investigador. No obstante, la persistencia en una actitud hostil o entorpecedora de la labor de la investigación por parte de cualquier órgano, servicio, dependencia o persona de la comunidad universitaria, podrá ser objeto de un informe especial o de su constancia expresa en el informe anual.

5) Tras el informe del Defensor, el presidente del Claustro abrirá un turno cerrado de ruegos y preguntas dirigidas al Defensor.

## VII. TITULUA
## URTEKO TXOSTENA

**19. artikulua**

1) Arartekoak urteko txosten bat egingo du eta Klaustroan aurkeztuko du ikasturte bakoitzean egiten den ohiko lehen bileran.

2) Gertaeren larritasunak edo urgentziak hala aholkatzen duenean, zilegi du Klaustroko Mahaiari zuzendutako aparteko txosten bat aurkeztea.

3) Urteko txostenean datu hauek jasoko ditu gutxienez ere:

a) Onartutako eskaeren eta ofizioz hasitako espedienteen kopurua eta zein motatakoak diren.

b) Atzera botatako eskaerak, tramitatzen ari direnak eta ikertu direnak lortutako emaitzarekin, bai eta eskaerak aurkezteko arrazoiak ere.

4) Txostenean ez dira jasoko ikerketa prozesuan interesdunak denen aurrean identifikatzeko modua ematen duten datu pertsonalak. Nolanahi ere, edozein organo, zerbitzu, bulego edo unibertsitate komunitateko kidek aurkako jarrerarekin edo ikerketa lana oztopatzeko jarrerarekin segitzen badu, arartekoak zilegi du jarrera horri buruzko txosten berezi bat edo jarrera hori urteko txostenean espresuki jasotzea.

5) Arartekoak txostena aurkeztu eta gero, klaustroburuak arartekoari zuzendutako eskari eta galderen txanda itxi bat irekiko du.

## Disposición Adicional

## Xedapen Gehigarria

La iniciativa de reforma de este Reglamento corresponde al Defensor, mediante propuesta al Claustro.

Arartekoari dagokio arautegi hau erreformatzeko ekimena, Klaustroari egindako proposamenaren bidez.

**Disposición Derogatoria**

La aprobación y entrada en vigor del presente Reglamento implica la derogación del Reglamento de Funcionamiento del Defensor de la Comunidad Universitaria de la Universidad Pública de Navarra aprobado por Acuerdo del Claustro Universitario de 18 de mayo de 2000.

**Xedapen Indargabetzailea**

Arautegi honek onespena jaso eta indarra hartzean indargabetuko da Unibertsitateko Klaustroaren 2000ko maiatzaren 18ko Erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitateko Komunitatearen Arartekoaren Funtzionamendu Arautegia.

**Disposición Final**

El presente Reglamento de Funcionamiento del Defensor de la Comunidad Universitaria de la Universidad Pública de Navarra entrará en vigor en el momento de su aprobación por el Pleno del Claustro.

**Azken Xedapena**

Klaustroaren Osoko Bilkurak onesten duenean hartuko du indarra Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitateko Komunitatearen Arartekoaren Funtzionamendu Arautegi honek.